

15 ATXILOTUAK

Espetxeratuak

- Eneko Agirre: Soto del Realen, ostegunetik. Torturak salatu ditu.
- David Ponce: Soto del Realen, ostegunetik. Torturak salatu ditu.
- Ekaitz Agirre: Alcalan, igandetik.
- Alberto Gonzalez: Alcalan, igandetik. Torturak salatu ditu.
- Ibai Bergara: Alcalan, igandetik. Torturak salatu ditu. Aurretik izaniko istripu batean jasandako zauriak sendatzeke ditu.
- Odei Egaña: Alcalan, igandetik. Torturak salatu ditu.
- Aritz Beristain: Soto del Realen, astelehenetik. Torturak salatu ditu.
- Oier Elorza: Soto del Realen, astelehenetik. Torturak salatu ditu.

Atxilotuak

- Iker Begiristain: atzo atxilotu zuten eta inkomunikatuta dago, Madril.
- Miren Azkarate: atzo atxilotu zuten eta inkomunikatuta dago, Madril.

Aske

- Aitor Mokoroa: ostegunetik aske. Torturak salatu ditu.
- E.O. adingabea: ostegunetik, aske.
- Iñaki Aierdi: larunbatetik aske. Ostiral gauean atxilotu zuten.
- Arkaitz Albiz: larunbatetik aske. Ostiral gauean atxilotu zuten.
- Ander Peña: igandetik aske. Fidantzapeko askatasuna eman diote.

di, Arkaitz Albiz eta Ander Peña.

Zortzi, berriz, Espainiako Auzitegi Nazionalen epailearen aurretik igaro ondoren espetxera bidali dituzte. Eneko Agirre eta David Ponce Soto del Realen daude ostegunetik; Ekaitz Agirre, Alberto Gonzalez, Ibai Bergara eta Odei Egaña Alcalá-Mecora igorri zituzten igandean; Aritz Beristain eta Oier Elorza izan ziren azken kartzelatuak, Soto del Realen horiek ere.

Tortura salaketak bederatzi izan dira guztira. Iragan ostegunean epailearen aurretik igarotzean, Guardia Zibilaren esku torturak jasan izana salatu zuen Aitor Mokoroak. David Ponce eta Eneko Agirre torturatuak izan zirela salatu zuen Askatasunak.

Igandean deklaratu zuten lau gazteetatik hiruk ere—Ibai Bergara, Alberto Gonzalez eta Odei Egaña—torturak jasan zituztela adierazi zioten Garzon epaileari. Astelehenean gauza bera egin zuten Oier Elorza eta Aritz Beristainek.

ATENTATU SAIOA. 'Gara' egunkariari eman zion abisu ETaren izenean jardun zuen batek

ETak auto batean utzitako lehergailua indargabetu du Ertzaintzak Zierbenan

25 kilo dinamita zituen lapikoak, eta Bakion ostutako Renault Express zuri batean zegoen



ALFREDO ALDAI / EFE

Ertzaintzaren robot bat, Zierbenan ETak utzitako autoa aztertzeko prest, atzo.

Maria Gonzalez | BILBO

Zierbenako (Bizkaia) bide bazter batean ETak utzitako autoan zegoen lehergailua indargabetu zuen Ertzaintzak, atzo. Eltze batean 25 kilo dinamita zeudela esan zuen EAEko Herriaingo Sailak. 10:30 aldera, ETaren izenean mintzatu zen pertsona batek *Gara* egunkariari deitu zuen, Zierbena inguruan lehergailu bat zegoela ohartarazteko.

Ertzaintzak 14:00etan indargabetu zuen lehergailua. Renault Express markako furgoneta zuri batean zegoen eltzea, N-639 errepideko 21,2 kilometroan. Etxebizitzarik hurbilena 200 metrora badago ere, Santurtzitik Zierbenara joateko biderik erabiliena da, baita Areeta hondartzara joa-



teko ere. Lehergailua nori zuzenduta egon zitekeen ez du argitu Herriaingo Sailak. Bilboko portura abiatzen diren ibilgailu astunen igarobidea da N-639 errepidea.

Autoaren ateak zabaldu ahal izateko, zenbait leherketa

txiki egin behar izan zituen Ertzaintzak, txakur trebatuek eta robot batek lagunduta. 25 kilo dinamita—titadine—zituen lapikoa aurkitu zuten poliziek autoan, Herriaingo Sailak berretsi duen legeaz. Lehergailuaz gain, urrutiko eragilea ere aurkitu zuten ertzainek.

Herriaingo Sailak adierazi zuenez, lehergailua zuen Renault Express furgoneta Bakion lapurtu zuten, abuztuaren 29an. Matrikula xafra faltsuak zituen autoak, bikoiztuak.

N-639 errepidea itxi egin zuen Ertzaintzak autoa zegoen ingurunean, eta bidearen zati bat arratsaldeko 17:00etan zabaldu zuten.

Alderdien gaitzespena

Ugariak izan ziren atzoko atentatu saioa gaitzetsi zuten

ESANAK

IÑIGO ORTUZAR

(Zierbenako alkatea - EAJ)

«Gerta zitekeenaz jabetu behar dute zierbenarrek eta euskal gizarteak»

EUSKO ALKARTASUNA

«Edozer lortzeko era zilegi bakarra bide demokratiko eta baketsua da»

CARLOS ITURGAITZ

(EAEko PPko presidentea)

«AEBetan irailaren 11n izandako atentatuei ETak eginiko omenaldia da hau»

alderdiak. Zierbenan bertan, herriko alkate Iñigo Ortuzarrek (EAJ) «gerta zitekeenaz» jabetzeko eskatu zien «zierbenarrei eta euskal gizarteari». Era berean, duela sei urte ETak Zierbenan guardia zibil bat hil zuela ere gogora ekarri zuen Iñigo Ortuzar alkateak.

Alderdietako ordezkariak ere bat egin zuten atentatua gaitzestean. «Edozein helburu lortzeko era zilegi bakarra, bide demokratiko eta baketsua da», adierazi zuen EAK, atentatua gaitzetsiz zabaldu-tako prentsa-oharrean.

EB-IUren zuzendaritzako bozeramaile Juan Sanchez Vallejo «bakea eta normalizazio politikoa lortzeko kontrako bidean» finkatu zuen atzoko atentatu saioa.

EAEko PPko bozeramaile Carlos Iturgaitzek «AEBetan irailaren 11n izandako atentatuei ETak eginiko omenaldi berezitat» jo zuen Zierbenako atentatu saioa. «Atentatuaren ostean, herritar gehienek gaitzespina baino ez du lortzen», salatu zuen Bizkaiko PSE-EEko idazkari Jose Antonio Pastorrek.

Aralarrek, azkenik, «errefusatu» egin zuen ETaren atentatu saioa, «horrelako ekin-tzek ez diotelako ezer onik ekartzen herri honi».